

# Larritasuna gaurko Literaturan

Oso egunekoa zaigu larritasun problema. Gizon askok erabili dute ta darabilte problema au bai barnean bai ta idaztietan. Batzuetan berau zaielarik problema gogorrena, bestetan ez ainbestekoa. Kierkegaard, Heidegger, Kafka, Sartre, Camus, diñotanaren lekuko.

Ezin uka, egunean iñoiz baño gogorrago dagerkigula problema au. Ba-dira, "larritasunaren filosofia", "larritasunaren anatomia", "larritasun literarioa". Baña problema au ezta egunekoa, mundua bezin zaharra baizik. Mundua mundu danetik izan baitu gizonak larria Jaungoikoaren misterio aurrean, izakiarenean, ta bere eriotzaren misterio aurrean ere. Ta razionalisten azalpenak ezin izan diote kezka ori utzarazi. Ezin; razionalistentzat eriotza, esaterako, garrantsi bakoa baita, azidente bat besterik ez. Oien iritziz, eriotz larriak erdefiatua izan bear du, "sentimentu" bat da-ta.

Esan dugunez, problema au "larritu" egin zaigu gaur. Zeri bear diogu eskertu ala kulpatu bere gaurkotasun au? Eztut zalantzik, bere esito zaratatsu au gure denporaren oiartzuna izateari diola zor. Larritasunaren filosofia bat, asurdoaren filosofia bat, oso egokia zitzaion noski gudak, lur-arteak, deportazioak, il-arazteak, ondapenak eta gudaosteak egindako ambienteari. Filosofiagandik zer itxaron bearke? Bergsonismoak ta marxismoak aspertu edo desilusionatu egin baizuten gaztedia ordurako. Nora jo bear, bada, erantzun eske? Problema gorria benetan ikastun gazteena! Ta ara nun agertu ziran esistenzialismoa ta surrealismoa erantzuna oso garbi emaki antza, an ikusi baizuten galderaren arrazoia. Erantzun goibelegia, ordea, egiazkoa izatekotan, ta, beraz, laburra ta desesperagarria, asurdoaren filosofia-rena zalako alegia.

Baña ba-dakigu: orduko klimari egokia oso zitzaiolako artu zuen indarra ta, noski, gorantza egin ere bai.

Aurrera jo aurretik, jarri dezagun argi ta garbi zer esan nai dugun *larritasun* itza darabilgun guzian.

Ikara-mundua gogoratzeko itz asko dira iztegian. Sinonimoak dira noski; ba-dute, ordea, nor bere bereiztasuna. Esaterako, ez dira berdiñak larritasuna, bildurra, laztura. Larritasuna olako estutasun bat

bezalakoa da, zintzurraldean, bularrean edo eztarrian. Ordea, zerau nai nuke obeki bereiztu, alegia: ikara, laztura, latzikara, egiazko arrixku baten aurrean sortzen dira beti, bildurra antzo. Beraz, zemaieren astuntasunarekin dute proportzio. Ostera, arrixkurik eztagerrenean edo biotzeko susperraldiak kausarekin proportziorik gordetzen ez tuenen, orduan, larritasunaren aurrean gaude. Eriotz arrixku baten aurrean, alere, ezin dezaioke gizonak inñolaz ere larritasunari igesik egin. Kezka, ikara ta larritasunaren biderdian dela esan genezake, eta urrengo kausarekin proportziorik gordetzen ez badin badu, larritasunarekin bat dator.

Gaurko sikologiak gogotsu jo du, noski, larritasunari dagozkion problemak aztertutzero, fenomeno au Filosofiari ta Neurolojiari batbatean baitzaie interesgarri. Apur bat sakondu besterik ez, bereala datorkigu galdera: fenomeno normala da, ala fenomeno sikolojiko gaizkorren aurrean ote gera? Nola erabilli bear da larriduna: Gaixo bezala ala lardaska igeskorra supritzen duanaren antzera? Ona laburki puntako iritzi biak: Askok larritasuna patolojikotzat jotzen dute; alegia, arrixkurik eztuala edo kausarekin proportziorik eztaukala diñioen oiek denak. Beste askok, ebitatu ezin dan fenomeno dala diñoie, baña normala. Auentzat, larritasuna, gu baitan dugun antagonismoaren konzientzia da.

Larritasuna edo angustia barrutik ikusi nai izan da sarri asko. Eguneko sikologoak ere egin dituzte alegiñak, eta ari dira oraindik. Guztiak datoz bat gutxi-gorabehera Bleuler jaunarekin. Jaun onen iritiz, gauza biren aurrean *autatu ezin*ak zertuten du larritasuna; lardaska edo trastornua, barrukoa zaigu osorik, eta aukeratzeko gai ezizatea kanpotik ezdatorkigu norberagandik baizik. Charles Odier jaunak ere, bere aldetik, larritasunak bere baitan daraman *ezin-sentimenduan* ekiten du.

Gaurko larritasunak ba-du, gañera, alako zerbait berezi. Xederik ez izatea noski. Literaturan dagerren izpiritu pesimista au, esistenziaren larritasun au, ez da besterik Europa desegiña, zatitua, dekadentea ta induriatuaren oiartzuna baño. Egunean dakuskuzan literatura surrealista ta esistenzialistaren aldaketa guziak, ori bai, Kierkegaardengan dute sustraia. Erabilli ere xedebako larritasunari dagokion tema au darabil ziurki geientsu bere lanetan Kierkegaard-ek. Agian, Kierkegaard beraren esistenzia ere gaurko munduaren gain datorrela dirudian trajeriaren atari bailitzan artu genezake. *Egunerokoan* bere murrin osakaitzaren berri ematen digu: "Gauzen ordenak oro larri-sentimenduz nau betetzen, eltxoagandik gizakunde misterioaraño; guzia zait ulergaitza, ta ene barnean batez ere; oro zaie nere begieri iguingarri, ta batez ere enegan".

“Andia da ene tristezia, neurribakoa; iñork eztu ezagutzen Jainkoak zeruan izan ezik, eta Ark enau kontsolatu nai. Jaungoikoak ezpada, beste iñork ezin nau kontsolatu, ta Berak eztu nai nizaz errukitu...”

Sartre ere onelatsu mintzatzen da, baño eztu Jainkoagan sinisterrik. Bere ateismoa sistematikoa da. Ta, jakiña, eztu iñun xederik somatzen.

Dakuskunez bada, larritasun onek eztu itxaropenik, eztu iñolazko erremediorik, zentzubako sentimendu bat besterik ezpaita. Eztu xederik, itz baten. Eta gauza guzien adierazpena xedea izanik —Eskolastika arauz— larritasun gaizkor onek elbururik ez eukitzean, eztu izateko arrazoirik. Ain zuzen, xedea arkitu bear zaio derriorez larritasunari. Bestela, nora jo diteke tristura gaizkor au bide dela? Nork bere burua iltzera nunbait. Auxe egin zuen, esaterako, Suezia-ko neska gazte batek Milena Milani-ren *Anna Drei* liburu garratz ta esistenzialista itzuli ondoren.

Larritasunak eragipena du gizonarengan, ba-dakigu. Baña norañoakoa da eragipen au, indar au? Ez noski, askok nai luketen beste-rañoakoa. Gizonak eztu larritasun sentimendua soillik bere barnean. Beste asko ere ba-ditu ta larritasunak bezin indar eta geiago dutenak gañera. Ba-ditu, adibidez, naimen bat, erabaki-almen bat, beragan eta besteengan segurantzi bat. Sartre-k eta beste askok eztute nai izan balio onek ikusi. Beti jarri dituzte beren begiak gauzen ta gizonen izatasun lizun, beltz, iguingarri ta zekenetan, baña bistan da, ezin zaiola bide ortatik gizonari filosofi egokirik iñoiz eman. Au ezin uka, besteak beste.

Larritasun sentimenduari asko eragin diote bere gaurkotasunean bai esistenzialismoak bai ta surrealismoak. Batez ere esistenzialismoak: Heidegger, Yaspers, Sartre, Merleau-Ponty, Levinas, Gabriel Marcel eta beste askok Kierkegaard ezkeru. Izan ere esistenzialismoaren karakteristika bat inseguridade totalaren sentimendua da. Sentimendu oneri, kezka, naga, leia, edo larritasuna deitu, berdin xamar zaigu oraingoz. Esistenzialista artean maiz entzun oi dira olako galderak: Ez al gera mundu zantar ontara jaurtiak izan, orren arrazoiak gu geu jabetu gabe? Eta filosofilari askorentzat galdera onen erantzuna Arrazoiakoiri edo misterioari ezarri bear baldin bazaio ere, esenziaren asurdo ta frakasoan ekiten dute beste askok. Sartre-k diño zera, alegia: “Edozein bizitzaren historia, frakaso baten historia dela”.

Surrealismoak, beralde, aski eragin dio larritasunari. Gizakume askatasunaren naiak egindako matxinada, erreboluzio intelektuala ta artistikoa, izpirituala ta literarioa izanik, gizona sikikaki bakandu nai du surrealismoak, gizonaren sikismo ori desegiteko. Beraz, surrealis-

moan bi izatasun dira beti kontraka: bata, mundu fisiko onen gañe-  
koa, izatasun fisikoa nabaritzen duana; errealtate fisikoaren mate-  
riatasunari josia, bestea. Bai, beti nahasten dute giza-bizitzarekin Jain-  
kozko elementua. Orregatik, ain zuzen, ikusi dezakegu lan surrealista  
geientsuenetan alako burruka, batasun-eza, zoro antzeko zerbait, nik  
esango.

Ikusi berri gera larritasunaren problemak dauzkan aurpegi batzuk,  
gaur egunean dagerkizkigun bezala ikusiki batez ere.

Nik uste, larritasun au ezjala posible supritzea esistenzialista ta  
surrealistak nai luketen bezala eramaki. Uste baitut larritasunak per-  
sonatasunaren egiazko konpromisorik ezjala beragan eraman bear.  
Izpirituaren jolas bat izan bear luke larritasunak, ez besterik. Edo  
beste era batera gauzak ikusiaz: Trastornu igeskor bat, neurosian  
erori aurretik Kierkegaard-engan izan zan bezala. Ta orduan bai,  
orduan besterik da: larritasuna onuragarria da oso. Gure ideia, pre-  
juizio, konzetu, oitura, egikera ta pentsakera gain nor bere buruari  
itauntzera beartzen gaitualako noski. Egia esan, ederki asko egiten  
dute onako au esistenzialista ta surrealistak, bizitza-kondizioak dau-  
ken asurdoa, iruzurra ta larritasuna ixituki seiñalatuaz. Baña larri-  
tasun au pentsamentu ta sentimenduetaraño sartzen danekoxe, gizo-  
naren esistenza oro bere menpe jartzen da, ta orduan datorkio bene-  
tan, egiazko ondapena gizonari: neurosia atejoka ta bizi sikikoa atze-  
koz aurrera ta gainbeheraka.

Bein onera ezkeru ondo dago esatea filosofi literario surrealista  
ta esistenzialista onek guztiok sustraian bertan dutela okerra. Izan  
ere, ez jakin, erdefiatu edo lotsagarritu egiten dituzte egitura gogor  
ta fundamentalak asko: adiskidetasuna, ezkontz-maitasuna, eginbea-  
rraren sentimendua, familiarena, bizitza erlijiosoa, esaterako. Egille  
auk irakurtzerakoan —Sartre ta beretarrak batez ere— materia gain  
diren izatasun guzti oiek ezpailiran dirudite, Itxuak dira, edo bear  
bada, larritasun literario ta azalezkoan dute atsegin.

Beintzat, esistenzialismoaren aita, ots, Kierkegaard, Jainko billa-  
ria zen bai, ta bere larritasuna noski, sinismenerako bide zitzaion.  
Gaurko Jainkobako esistenzialismoak, ordea, lehen esan dugunez, nor  
bere burua iltzera daramakigu, irteera bako kale itxua baita.

Egiatzko bidea artzekotan Gabriel Marcel-en esistenzialismora jo  
bear genukela uste dut. Gabriel Marcel-ek bere filosofiaren zentrua  
maitasunean du ipintzen. Eta larritasun literario ta filosofiko au etapa  
bearrezkotzat dauka, ta orregatik ain zuzen, ezin diteke iñoiz xedea  
izan. Etapa bearrezkoa, alabaña, zuzenduna ta egiazkoa baldin bada.

TORRE-ALDAY.